

ERIA



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

XV ARTES ESCÉNICAS



dFERIA

DONOSTIA - SAN SEBASTIÁN

30-04
EKAINA-UZTAILA
JUNIO-JULIO
2009



www.dferia.com

dFERIA

DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA TEATRO VICTORIA EUGENIA

AVENIDA DROPSIE (J.B.A.-V.O.S.E.)

Sutil Companhia de Teatro (Brasil) _ Ekaina 30 Junio - Uztaila 1 Julio 20:30 / 110 min.
Autorea / Autor: Will Eisner **Zuzendaria / Director:** Felipe Hirsch. **Aktoreak / Actores:** André Fratreschi, Duda Mamberti, Erica Migon, Guilherme Weber, Jorge Emil, Leonardo Medeiros, Magali Biff, Maureen Miranda.

ESTREINALDIA EUROPEAN / ESTRENO EUROPA



Avenida Dropsie Will Eisner artista grafikoaren unibertsoaren azterketa sakona da. Hiri handi bateko bizi-esperientzia eszenaratzeko da, bere aldebereotasun eta poesia guztiarekin. Gure garaiko artista handienetako baten bizitzari buruzko ikerketa-lan handia egin da, *Spirit* sorkari iraultzailea asmatu zuenetik eleberrigrafiakoetara hedatzen dena, eta marrazkilaria eta idazlearen oroimeneko istorioak, pertsonaia eta irudiak biltzen dituen gidoi batean eszenaratzeko da. Ikuskizuna hiri handietan dauden pertsonaia ezberdinen erakusgarri da, eszenaratzeko erabat zinematografikoak sortua.

Avenida Dropsie es el fruto de un estudio profundo del universo del artista gráfico Will Eisner. La experiencia de vida en una ciudad grande es contada en escena con toda su simultaneidad y poesía. El amplio trabajo de investigación sobre la obra de uno de los mayores artistas de nuestro tiempo se extiende desde su revolucionaria creación de *Spirit* hasta, principalmente, sus novelas gráficas, y es reflejado en escena en un guión que reúne historias, personajes e imágenes de la memoria del dibujante y escritor. El espectáculo es un muestrario de la diversidad de personajes que habitan en las grandes ciudades, con una puesta en escena absolutamente cinematográfica.

BITE THE DUST (J.B.A.-V.O.S.E.)

Provisorium (Polonia) _ Uztaila 2 Julio 20:30 / 75 min.
Zuzendaritza / Dirección: Janusz Opyrński, Witold Mazurkiewicz **Aktoreak / Actores:** Jacek Brzeziński, Witold Mazurkiewicz, Jarosław Tomica, Michał Zgiet, Borys Somerschef **Jatorrizko musika / Música original:** Borys Somerschef

ESTREINALDIA ESPAINIAN / ESTRENO ESPAÑA



Tadeusz Rozewicz-en drama hunkigarriaren egokitzapen bat da *Bite the dust*. Naturalismo soila sentiberatasunarekin konbinatuz, bikain adierazten du gerraren izugarrikeria, lana Bigarren Mundu Gerraren testuinguruan ezarritik. 70eko hamarraldiko azken urteetan girotua, militarren pentsaerari buruzko satira bat da lana. Poloniarrek armada noble eta abertzaletzat zeukaten Poloniako Armada Nazionala. Lan honetan, ordea, armada ez da ez bata ez bestea.

Bite the dust es una adaptación del emocionante drama de Tadeusz Rozewicz. Combinando un sobrio naturalismo con sensibilidad, retrata magistralmente el horror de la guerra, contextualizando la obra en la II. Guerra Mundial. Ambientada en los últimos años de la década de los 70, la obra es una sátira que trata sobre el modo de pensar militar. La población polaca consideraba la Armada Nacional Polaca como una armada noble y patriótica. En esta obra, no es ni una cosa ni la otra.

GERNIKA

Aukeran Dantza Konpainia (EAE / CAP) _ Uztaila 4 Julio 20:30 / 90 min.
Zuzendaria / Director: Edu Muruamendiarras **Eszena zuzendaria / Directora de escena:** Garbi Losada

Gidoia / Guión: Jose Antonio Vitoria **Musika originala / Música original:** Aitor Ametzaga **Dantzariak / Bailarines:** Gotzon Poza, Idure Aranburu, Ander Errasti, Onintza Odriozola, Ioritz Galarraga, Maitane Mujika, Ekain Kazabon, Nahikari Galarraga, Aiert Beobide, Ane Anza

ESTREINALDI ABSOLUTUA / ESTRENO ABSOLUTO
PLATAFORMA PARA LA DANZA DEL GOBIERNO VASCO
EUSKO JAURLARITZAKO DANTZARAKO PLATAFORMA



Aukeran Dantza Konpainiaren *Gernika*, 1937ko apirilean gertaturikoaren kontakizuna da. Pluraleko lehen pertsonan kontatua da, hots, bombardaketa jasan zutenek berek kontatua. Proposamenak dantza tradizionala eta garaikidea batzen ditu, eta argiak eta koloreak erabiltzen ditu giroak sortzeko.

Bombardaketan hildakoak heriotzatik itzultzen dira, zer gertatu zen kontatzeko. Hondamendiaren aurretik nolako bizitza zuten kontatuko dute, nola erori zen gerraren infernua herriaren gainera, nola birrindu zuten, eta nola, oroimenaren bitartez, jaioko dituzten berriz.

Gernika de Aukeran Dantza Konpainia es la narración de lo ocurrido en abril de 1937, contado en primera persona del plural, es decir, por aquellos que sufrieron el bombardeo. La propuesta fusiona la danza tradicional y contemporánea, y el uso de luces y colores para crear ambientes.

Los fallecidos en el bombardeo vuelven de la muerte para contar lo sucedido. Hablarán de cómo era su vida antes de la destrucción, de cómo se desató el infierno de la guerra sobre su pueblo, arrasándolo, y de cómo, a través de la memoria, es posible renacer.

ANTZOKI ZAHARRA – TEATRO PRINCIPAL

CAMARADA K

Produccions del mar (Balears) _ Ekaina 30 Junio _ 23:00 / 90 min.
Autorea eta zuzendaria / Autor y director: Joan Carles Bellviure **Aktoreak / Actores:** Sergi Baos, Margalida Grimalt, Joan Manel Vadell

ESTREINALDIA EUSKADIN / ESTRENO EUSKADI



Camarada K Daniil Kharms autore errusiarraren egunkarietatik, literatur lanetatik eta bizitzatik sortua da. Bigarren Mundu Gerra du testuinguru. Ikuskizunean, autorearen testu batzuk birsortzen dira, haren bizitza gogoraren (estalinismoaren garaian) eta literatur lanen arteko kontrastea azalduz. Haren literatur miniaturak dibertituak dira maiz, baina tragikoak beti; pobrezia eta zapalkuntzaren eszenak kontatzen dituzte, sinbolo fantasiako eta satirikoaren bidez, eta horrek mundu ustekabeko eta desordenatua agerrarazten du, egoera absurdo eta ulertezinez bete.

Camarada K se configura a partir de los diarios, la producción literaria y la vida del autor ruso Daniil Kharms, marcada por la II Guerra Mundial. En el espectáculo se recrean algunos de los textos del autor exponiendo el contraste entre la dura vida del autor en la época estalinista y su obra literaria. Sus miniaturas literarias son a menudo divertidas, pero siempre trágicas; narran escenas de la pobreza y la opresión a través de símbolos fantásticos y satíricos, y esto genera un mundo imprevisible y desordenado; con situaciones absurdas e inexplicables.

TATAMI

Ttanttaka (EAE/CAP) _ Uztaila 1 Julio 23:00 / 80 min.
Aktoreak / Actores: Gorka Aginagalde, Naiara Arnedo **Autorea / Autor:** Alberto Olmos **Moldaketa / Adaptación:** Kike Díaz de Rada **Zuzendaritza / Dirección:** Fernando Bernués, Kike Díaz de Rada

ESTREINALDI ABSOLUTUA / ESTRENO ABSOLUTO



Madrid-Tokio bidaia. Filologia hispanikoko lizentziatu bat, gogo-bizia eta xaloa. Bidaia bitxi bat, istorio oso berezia kontatzen diona. Begiluze baten istorioa.

Olgak entzun egiten du, galdetu, eskandalizatu egiten da, baina gustura ari da morboan, hala ere: entzun nahi du eta ez du nahi, jakin nahi du eta ez du nahi, harik eta berearen gustuz desberdina den sexu-irrika sentitzeko era baten konplexutasunak herrestan eramaten duen arte.

Un viaje Madrid-Tokio. Una licenciada en filología hispánica, entusiasmada e ingenua. Un pasajero anómalo que le cuenta una historia particular. La historia de un mirón. Olga escucha, cuestiona, se muestra escandalizada pero también chapotea en el morbo; quiere y no quiere oír, quiere y no quiere saber, hasta sentirse arrastrada por la complejidad de una forma de sentir la pulsión sexual tan diferente de la suya.

EL CLUB DE LAS MUJERES INVISIBLES

Vaivén Producciones (EAE/CAP) _ Uztaila 2 Julio 23:00 / 75 min.
Zuzendaria / Director: Fernando Bernués **Aktoreak / Actores:** Ainara Ortega, Ana Pimenta, Iñaki Salvador, Mónica Van Campen, Dorleta Urretabizkaia **Zuzeneko musika / Música en directo:** Iñaki Salvador, Ainara Ortega



Pianojole baten eta kantari baten arteko maitasun bitxi baten kontakizuna. Ikusezin bihurtzen den emakume batek taberna du, eta hara joan eta bere historia kontatzen duten emakume guztiek doan edaten dute. Hori guztia, Iñaki Salvadorren pianoaren eta Ainara Ortégaren biolinaren eta ahotsaren musika zuzenean dela.

El club de las mujeres invisibles sei istorio komiko eta dramatikotatik sortu da. Autore handien lumatik sortutako emakume ikusezinen istorioak dira: Juan Mayorga, Jordi Galcerán, Laila Ripoll, Oscar Terol, Arantxa Iturbe eta Aizpea Goenaga.

Una historia de amor singular entre un pianista y una cantante. Una mujer que se torna invisible regenta un bar en el que cada mujer que acude y cuenta su historia, bebe gratis. Todo ello acompañado por la música en directo del piano de Iñaki Salvador y del violín y la voz de Ainara Ortega.

El club de las mujeres invisibles nace de seis historias, cómicas y dramáticas de mujeres "invisibles" nacidas de la pluma de autores y autoras importantes: Juan Mayorga, Jordi Galcerán, Laila Ripoll, Oscar Terol, Arantxa Iturbe y Aizpea Goenaga.

EL TÍTULO DE ESTE ESPECTÁCULO NO ES MI MADRE

SeXpeare (Madrid) _ Uztaila 4 Julio 23:00 / 70 min.
Aktoreak / Actores: Santiago Molero, Rulo Pardo **Zuzendaria / Director:** SeXpeare / David Ottone

ESTREINALDI ABSOLUTUA / ESTRENO ABSOLUTO



Antzerki-lan honen historia beste batzuk hasten diren puntuak amaitzen da. Marco hil berri da, eta, berrargitzeko, bizi zen bitartean izan zen guztiaz biluztu behar du. Prest da horretarako, salbu eta Michelleren oroitzapena ahazteko, bere biziko maitearena. Protagonistak ihes egin nahi du izaki arraroz eta fenomeno azalezinez beteriko unibertso hotzetik, baina ezin du, hilda baitago. Baina bera ez da enteratzen... Ergela da Marko.

La historia de esta obra acaba donde otras comienzan. Marco se acaba de morir y para poder reencarnarse debe despojarse de todo lo que fue durante su vida. Está dispuesto a ello, menos a olvidarse del recuerdo de Michelle, el amor de su vida. El protagonista quiere huir del frío universo habitado de seres extraños y fenómenos inexplicables, pero no puede porque esta muerto. Pero él no se entera... Marco es tonto.

GAZTESZENA (C.C. EGIA K.E)

1.01

Dantzas (EAE/CAP) _ Ekaina 30 Junio _ 18:30 / 60 min.

Koreografiak / Coreografias: Christophe García, Hilde Koch, Eric Gauthier _ **Dantzariak / Bailarines:** Aurélien Alberge, Sophie Antoine, Olivier Coeffard, Charline Debons, Alejandra García, Nuria Giménez, Giovanni Insaudó, Garazi Perez, Francisco Sánchez, Andrea Vallescar _ **Zuzendaritza artistikoa / Dirección artística:** Adriana Pous Ojeda

PLATAFORMA PARA LA DANZA DEL GOBIERNO VASCO EUSKO JAURLARITZAKO DANTZARAKO PLATAFORMA



Dantzas konpainiak bere azken sorkuntza-lana eszenaratzen du, *1.01*, Christophe García, Hilde Koch eta Eric Gauthier-ek diseinaturiko lau koreografiak osatua. *Ballet 101* dantza klasikoko oinarriko bost posizioetatik abiatzen da 100 posizio sortzeko, ballet eta koreografo ezagunenei buruzko erreferentzia umorezkoak eginez. *Björk Duets*ek giza harremanen alderdi zaharrak esploratzen ditu Björk kantari islandiararen kanten bitartez, eta *Songeurs* amets laburra da, heldu beharreako lipar batez errealtatetik ihes egin nahi bada. Azkenik, *Torque*, non dantzari gazteak inprobisazioarekin lan egiten jarri nahi izan baitira, sorkuntza-prozesuan gehiago parte har dezaten.

La compañía Dantzas pone en escena su última creación, *1.01*, compuesta por cuatro coreografías diseñadas por Christophe García, Hilde Koch y Eric Gauthier. *Ballet 101* parte de las cinco posiciones básicas de la danza clásica para crear 100 posiciones con referencias humorísticas a los ballets y coreógrafos más conocidos. *Björk duets* explora varias facetas de las relaciones humanas a través de las canciones de la intérprete islandesa Björk, y *Songeurs* es un breve sueño al cual merecerá la pena aferrarse para evadirse de la realidad por un instante. Por último, *Torque*, en el cual se ha querido introducir a los jóvenes bailarines en la forma de trabajar con la improvisación, haciéndoles así más partícipes del proceso creativo.

D-KOD-R

Teatr Okazjonalny / Occasion Dance Theatre (Polonia) _ Uztaila 1 Julio _ 18:30 / 60 min.

Koreografia eta dantzariak / Coreografía y bailarines: Monika Grzelak, Joanna Czajkowska, Przemysław Wereszczyński, Jacek Krawczyk

ESTREINALDIA ESPAINIAN / ESTRENO ESPAÑA



D-kod-R ikuskizunak liluran du sustraia: dantzaren hizkuntzak eta giza gorputzak komunikatzeko dituzten ahalbideek sortutako liluran. Gorputza komunikazio-bide bat da, hizkuntza bera baino askoz lehenagotik, eta, horrez gainera, norbanako bakoitzaren gizarte-esperientzia islatzen du. Gaur egun hizkuntza idatzia eta idazketa nagusi badira ere, gorputzak oraindik ere hasierako eginkizun hura du.

Ikuskizunean, ikusleek bat egingo dute artistekin bidaia hungigarrian, eta ikusiko dute nola jaio zen mugimendua biziaren sorburuan, zer funtzio zuen lehen komunitateetan, eta zer-nolako garapena izan duen denboran zehar, harik eta pertsonen arteko harreman fisikoak baztertu diren arte, teknologien mesedetan.

El espectáculo *D-kod-R* tiene su raíz en la fascinación por el lenguaje de la danza y las posibilidades que tiene el cuerpo humano para comunicarse. El cuerpo es un medio de comunicación, lo es mucho antes de que lo fuera el lenguaje y refleja, además, la experiencia social de cada individuo. A pesar de la actual dominación del lenguaje hablado y la escritura, el cuerpo aún tiene el mismo rol primario.

Durante el espectáculo el público se unirá a los artistas en un emocionante viaje y presenciará el nacimiento del movimiento en el origen de la vida, su función en las primeras comunidades y su desarrollo en el tiempo, hasta la situación en la que las relaciones físicas existentes entre las personas se marginalizan en beneficio de las tecnologías.

HERMANOS DE BAILE

Adelante artística (Madrid) _ Uztaila 2 Julio _ 18:30 / 80 min.

Zuzendaritza / Dirección: Yllana, Raúl Ortega _ **Dantzariak / Bailarines:** Raúl Ortega, Kelian Jiménez, Héctor Hope, Guille Vidal-Ribas, Rubén Sánchez, Ludovico Hombravella _ **Perkusioa / Percusión:** José Álvarez "El Montaña"

ESTREINALDIA EUSKADIN / ESTRENO EUSKADI



Hiru bikotek, hiru estilok eta arteak, zehaztasunak eta erritmoak, hiri-parajeetan zehar eramango gaituzte; dantzaren zazpi profesionalen maisutasunean bilduko gaituzte. Flamenkoak, Break dance-ak eta Tap claqué-ak bat egiten dute, ikuskizun errebelde eta ezin irauliagoa eskaintzeko.

Edozein herrialdetako edozein hiritan, kaleko artistek beren lekua sortzen dute erronka eta gau-komunioen bidez. Etorbide bat, plaza bat, parke baten berdea... Edonon sortzen da erronka, erritmoz eta pasioz. Bi metro koadro aski dira arerioari erronka jotzeko, eta odolak eta arimak baino ez dute balio arma gisa.

Raúl Ortega New Yorken ezagutu zituen Break dance-a eta Hip hop-a, eta haietaz maitemindu zen. Prestakuntza flamenkoa izanik, baina Tap claquéko dantzaria ere bai, argi ikusi zuen estilo horiek batzeko aukera, ikuskizun hausle batean: *Hermanos de baile* honetan.

Tres parejas, tres estilos y el arte, la precisión y el ritmo nos llevarán por parajes urbanos y nos envolverán con la maestría de siete profesionales del baile. El flamenco, el Break Dance y el Top Claqué se unen para ofrecer espectáculo rebelde y pasado de revoluciones.

En una ciudad cualquiera de un país cualquiera los artistas callejeros se hacen su hueco a base de desafíos y comuniones nocturnas. Una avenida, una plaza, el verde de un parque, en cualquier sitio nace un desafío con ritmo y pasión; 2 metros cuadrados son suficientes para retar a un rival y solo la sangre y el alma valen como arma.

ZOO (Bestias trajeadas)

Ertza (EAE/CAP) _ Uztaila 4 Julio _ 18:30 / 60 min.

Zuzendaria / Director: Asier Zabaleta _ **Dantzariak / Bailarines:** Pilar Andrés, Andrea Quintana, Manuel Rodríguez, Noemi Viana, Asier Zabaleta

PLATAFORMA PARA LA DANZA DEL GOBIERNO VASCO EUSKO JAURLARITZAKO DANTZARAKO PLATAFORMA



ZOO honek gizaki talde bat espazio murriztatuetan ikusteko aukera emango digu. "Habitat" berri honetan jarduera jokatzen duten ikusi ahal izango dugu eta beraien ohitura eta jarreraren testigu izango gara. Experimentu baten barne baleude bezela aztertuko ditugu gure babes kokalekutik, beren egunerokotasunaren "voyeur" izango garelarik. Animalia hauen erreakzio bortitzenak ikusteko aukera ere izango dugu. Ikusiak izan gabe ikusi. Baina pribilegio honek ordain bat ekar dezake berarekin... geure burua bertan ikustearana.

Este zoo nos da la oportunidad de observar a un grupo de seres humanos expuestos en un espacio reducido. Podremos ver cómo se desenvuelven en su nuevo hábitat y seremos testigos de sus costumbres y comportamientos. Los analizaremos como si formaran parte de un experimento en el que desde nuestra situación protegida, seremos "voyeurs" de su vida cotidiana. Tendremos el privilegio de ver las reacciones más salvajes de estos "animales". Ver sin ser vistos. Pero este privilegio tiene un precio... verse identificado en sus acciones.

IMANOL LARZABAL (C.C. LUGARITZ K.E.)

EUSKARAZETAMOL (euskaraz)

Ez dok hiru biko teatroa (EAE/CAP) _ Ekaina 30 Junio _ 16:30 / 60 min.

Autorea / Autor: Patxo Telleria _ **Aktoreak / Actores:** Patxo Telleria, Mikel Martínez _ **Zuzendaria / Director:** Jokin Oregi



Euskarazetamol da **Ez dok hiru bikoteatroak** *Dibertimenduak* izenez sortutako trilogiaren hirugarren eta azken emaitza (aurrez, *Euskera sencilloaren manifestoa* eta *Larruaizetara* izan ziren). Aurreko hiru lanetan bezala, Patxo Telleriak eta Mikel Martínezek harridura sortzen, jolasean eta atsegin ematen jarraituko dute euskara dela medio.

Euskarazetamol es el tercer y último producto de la trilogía que **Ez dok hiru bikoteatroa** bautizó como *Divertimentos* (antes fueron *Euskera sencilloaren manifestoa* y *Larruaizetara*). Como en las anteriores obras Patxo Telleria y Mikel Martínez, seguirán sorprendiendo, jugando y divirtiendo con el euskera.

¿SE PUEDE?

Mama Crea (EAE/CAP) _ Uztaila 1 Julio _ 16:30 / 60 min.

Dramaturgia / Dramaturgia: Ana i punto, Nuria M. Cres, Soledad Carril _ **Zuzendaria / Director:** Ion Ariño _ **Interpretazioa / Interpretación:** Ana i Punto



Noraino iristeko prest gaude maite dugun norbaiten galera ez onartzearen? Lana heriotzak sorrarazten dituen sentipenetara hurbiltzen da, ikuspuntu komikotik planteatuta. *¿Se puede?* Keinu-umorezko ikuskizuna da, ametsua eta jostagarria, gag-ekin, mugimendu komikoarekin eta objektuen manipulazioarekin jokatzen duena. Mama Crea konpainiak formatu txiki-ertaineko tragikomedia eskaini nahi izan du lan honetan. Ikuskizun honekin, dFERIAk antzerki munduan indarrez sartu den konpainia gazte honen aldeko apostua egin du.

¿Hasta dónde somos capaces de llegar, por no aceptar la pérdida de un ser querido? La obra se acerca a los sentimientos que genera la muerte, planteados desde un punto de vista cómico. *¿Se puede?* es un espectáculo de humor gestual, unipersonal, amable y divertido que juega con los gags, el movimiento cómico y la manipulación de objetos. La compañía Mama Crea pretende con esta obra ofrecer una tragicomedia versátil que recorra con facilidad la geografía. Es una apuesta de dFERIA por una compañía joven que ha entrado con fuerza en el panorama teatral.

POWIEKSZENIE

Teatr Okazjonalny / Occasion Dance Theatre (Polonia) _ Uztaila 3 Julio _ 16:30 / 45 min.

Kontzeptua, koreografia eta interpretazioa / Concepto, coreografía e interpretación: Joanna Czajkowska _ **Musika / Música:** Karolina Rec, Rafal Detko

ESTREINALDIA ESPAINIAN / ESTRENO ESPAÑA



Existentialistek esan ohi dutenez, gizakiak ez-izaki gisa definitu behar du bere burua; izatearen, egonkortasunaren, ukigarritasunaren eta aldaezintasunaren ukazio gisa. Horri esker izan daiteke aske gizakia. Askatasun hori, ez garenaz ohartzen garenaren senti daiteke, hartara etorkizunean zer izan erabaki ahal izateko. Askatasuna ez-izate hori denez, balioek eta zentzuek eragin behar dituzte gure erabakia, eta ez mundu fisikoko alderdi materialek. Ekinntza arduratsu orok kanpoko mundutik erretiratzea eskatzen du. Bizi izatea eta nork bere burua norbanako gisa ezagutzeko prozesua dira ikuskizun honen gai euskarriak. Dantzari bakar batek jarduten du.

Como dicen los existencialistas, el hombre debe definirse a sí mismo como un no-ser; como una negativa al ser, a la estabilidad, a la tangibilidad y a la invariabilidad. Es lo que permite la libertad del ser humano. Libertad que se puede sentir cuando somos conscientes de lo que no somos, para de esta manera, poder decidir qué ser en el futuro. Como la libertad es el no-ser, nuestras decisiones deben estar motivadas por valores y sentidos, y no, por los aspectos materiales del mundo físico. Toda acción responsable requiere una retirada del mundo externo. El proceso de vivir y reconocerse a uno mismo como individuo son los temas en los que se basa este espectáculo en el que participa un solo bailarín.

ITINERARTE 09

artes escénicas latinoamericanas en gira

VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA TEATRO VICTORIA EUGENIA

MIRANDO AL SUR

CND Costa Rica eta CND El Salvador (Costa Rica y El Salvador) _ Uztaila 3 Julio _ 20:30 / 80 min.

C.N.D Costa Rica: **Zuzendaritza eta koreografia / Dirección y Coreografía:** Humberto Canessa
Dantzariak / Bailarines: Yorleni Bolaños, Marlon Cabellos, Wendy Chinchilla, Humberto Canessa, Pablo Caravaca, Antonio Corrales, Silvia Montero.

C.N.D El Salvador: **Zuzendaritza eta koreografia / Dirección y Coreografía:** Francisco Centeno
Dantzariak / Bailarines: Elsy Gómez, Laura Benítez, Vanessa Cintron, Byron Nájera, Carlos Bonilla, Adrián Figueroa.

ESTREINALDIA EUROPAN / ESTRENO EUROPA



Mirando al Sur lanak migrazioaren fenomenoari buruzko gogoeta eszenaratzea proposatzen du. Costa Rica eta El Salvadorreko dantza konpainia nazionalak dantzariak noizbait sorterritik alde egin zutenen bakardadea, frustrazioa eta mira islatzen dute. Migrazioen errealitatea ezagutaraziko dute muga eta etxe kontzeptuen inguruan gogoeta egiten duten bi dantza-muntaketaren bitartez: *OU-Topos* eta *Punto ciego*.

Mirando al Sur propone llevar al escenario la reflexión sobre el fenómeno migratorio. Los bailarines de las compañías nacionales de danza de Costa Rica y El Salvador plasman la soledad, la frustración y la añoranza de aquellos que un día dejaron su hogar. Darán a conocer la realidad de las migraciones a través de dos montajes de danza (*OU-Topos* y *Punto ciego*) que reflexionan en torno a los conceptos de frontera y hogar.

ANTZOKI ZAHARRA – TEATRO PRINCIPAL

DESDECHADO DELEITE DEL DESTINO

Desdechado deleite del destino (Argentina) _ Uztaila 3 Julio _ 23:00 / 60 min.

Zuzendaria / Director: Corina Fiorillo _ **Aktoreak / Actores:** Belén Brito, Nelson Rueda, Nacho Vavassori

ESTREINALDIA EUROPAN / ESTRENO EUROPA



Goiz batean, Don Pancho patuak jokaldi txarra egin diola jakiten du: inurriek akabatu egin dituzte alabak baliu bezala zaintzen eta babesten zituen arosak. Pasadizo horretatik aurrera, tragikomedia bat garatzen da, Don Panchoen alabak eta kale-saltzaile batek kontatuta. *Desdechado deleite del destino* argentinarraren identitate nazionalen blaitutako testua da. Ikuskizunak pertsonaia konplexuak aurkezten ditu; denak ere urrun eduki beharrekoak, hondamendia besterik ez baitakarte.

Una mañana, Don Pancho descubre que el destino le ha jugado una mala pasada: sus rosas, a quienes cuida y protege como hijas, han sido exterminadas por las hormigas. A partir de esa anécdota se desarrolla una tragicomedia que nos irá revelando la hija de Don Pancho y un vendedor ambulante. *Desdechado deleite del destino* es un texto que posee una gran identidad nacional argentina. La obra presenta personajes complejos de los que habrá que alejarse, porque únicamente conducen a la destrucción.

GAZTESZENA (C.C. EGIA K.E)

PASO DOBLE

Mirella Carbone (Perú) _ Uztaila 3 Julio _ 18:30 / 18 min.

Koreografia eta interpretazioa / Coreografía e interpretación: Mirella Carbone _ **Musika / Música:** Margaret Leng tan

ESTREINALDIA EUROPAN / ESTRENO EUROPA



Zer dio nire barne-ahotsak? Batzuetan ez dakit zer esan nahi dudana, baina zerbait esateko gogoia sentitzen dut laino artean; ezari-ezarian, ezkutuko egia hori agertu eta borroka dator... Gero, zoli behatzen dut; neure sekretuaz jabetzen naiz eta neskatoa, erlaxaturik, andre horrengan sartzen da. Horra *Paso Doble*, berbaldi bikoitza, moral bikoitza, etengabeko gatazkaren eta norbera den bezala agertzearen premia izugarriaren barne-borroka.

Qué dice mi voz interna? A veces no sé qué es lo quiero decir, aunque siento entre nubes la necesidad de decir algo; poco a poco sale esa verdad oculta y viene la lucha... Me adueño de mi secreto y la niña ya relajada entra en esa mujer. Es *Paso Doble*, el doble discurso, la doble moral, la lucha interna del conflicto constante y la terrible urgencia de mostrarse tal cual uno es.

IMANOL LARZABAL (C.C. LUGARITZ K.E.)

MI MUÑEQUITA

Cia. Complot (Uruguay) _ Uztaila 2 Julio _ 16:30 / 55 min

Dramaturgia / Dramaturgia: Gabriel Calderón _ **Zuzendaritza / Dirección:** Gabriel Calderón, Ramiro Perdomo _ **Aktoreak / Actores:** Dahiana Méndez, Cecilia Cóssero, Cecilia Sánchez, Leonardo Pintos, Mateo Chiarino, Leandro Nuñez

ESTREINALDIA EUSKADIN / ESTRENO EUSKADI



Beste edozein bezalako familia bat, neskato bat eta haren panpina, beste edozein bezalako. Ingurune ankerraren zurrumbilano sartuta, neskatoak, panpinarekin batera, helduen joko gaiztoan bizirik iraungo du, batere xalotasunik gabe. *Mi muñequita* lente deformatzaile baten bitartez erakusten du pribatua dena. Umorea eta begirunerik eza dira munduaren eta familiaren kontra ankerki jotzen duen testu hau eszenaratzeko tresnak.

Una familia como cualquier otra, una niña y su muñeca como cualquier otra. Sumida en la vorágine de un entorno cruel, una niña será, junto a su muñequita, la nada cándida superviviente de un perverso juego de adultos. *Mi Muñequita* muestra lo privado a través de una lente deformante. Humor e irreverencia son las herramientas a través de las cuales se escenifica este texto feroz con el mundo y la familia.

MEA CULPA

Grupo Teatral Bambú (Honduras) _ Uztaila 4 Julio _ 16:30 / 75 min.

Autorea eta aktorea / Autor y actor: Felipe Acosta _ **Zuzendaria / Director:** Danilo Lagos

ESTREINALDIA EUROPAN / ESTRENO EUROPA



Aurreko gauean edandako alkoholaren atzaparretan esnatzen da Jesus, pattar-trago baten irrikaz, ajeak eta bizitzak berak sentiarazten dizkioten oinazeak jasan ahal izateko. Aldamenean, Demetrio du lo, beste alkoholiko bat. Bide berean dabilta biak, eta harekin hitz egiten du, zabal, ametssez, penez eta alaitasunez. Lanak bizioaren hondarreen borrokatzen diren milaka pertsonaren bizitza laburbiltzen du, urrats bakoitzean barre eta negar egiten dutenen bizitza. Beren zorritzarraren kausez trufatzearekin batera, madarikatu egiten dituzte.

Jesús despierta preso del alcohol ingerido durante la noche anterior, ansioso de un sorbo de aguardiente que le permita soportar los dolores que la resaca y la vida misma le hacen sentir. A un lado duerme Demetrio –otro alcohólico– con quien comparte el camino, y con quien habla abiertamente de sus sueños, de sus penas y sus alegrías. La obra sintetiza la vida de miles de personas que se debaten en el fondo del vicio, que ríen y lloran a cada paso; que se burlan, al tiempo que maldicen las causas de su infortunio.

Sarreren salmenta / Venta de entradas

ALDEZ AURRETIK / ANTICIPADA

Victoria Eugenia Antzokia
Teatro Victoria Eugenia

(943 48 18 18)
Orduategia / Horario: 11:30-13:30 / 17:00-20:00

Antzoki Zaharra
Teatro Principal

(943 48 19 70)
Orduategia / Horario: 11:30-13:30 / 17:00-20:00

Servikutxa
Telekutxa
(943 00 12 00)
www.kutxanet.net

FERIA BITARTEAN / DURANTE LA FERIA

Victoria Eugenia Antzokia – Teatro Victoria Eugenia

(943 48 18 18)
Orduategia / Horario: 11:30-13:30 / 17:00-20:30

Antzoki Zaharra – Teatro Principal

(943 48 19 70)
17:00etatik ikuskizuna hasten den arte / De 17:00h a comienzo del espectáculo

Gazteszena / C.C. – Egia K.E.

(943 29 15 14)
Ikuskizuna baino ordu bat lehenago / Una hora antes del espectáculo

Imanol Larzabal / C.C. – Lugaritz K.E.

(943 31 07 80)
Ikuskizuna baino ordu bat lehenago / Una hora antes del espectáculo

SALNEURRIAK / PRECIOS

Antzoki Zaharra / Teatro Principal,
Gazteszena / C.C. – Egia K.E.,
Imanol Larzabal / C.C. – Lugaritz K.E.:
10€

Victoria Eugenia Antzokia / Teatro Victoria Eugenia:
20€ / 15€ / 10€

Deskontuak / Descuentos:
Donostia Kulturako txartelarekin %10eko deskontua
Con la tarjeta Donostia Cultura 10% de descuento

ORDU GAZTEA!
¡HORA JOVEN!
3€ <30min

<30 urte / años
dFERIAko ikuskizun guztietan
En todos los espectáculos de dFERIA